



OKENDO ALMIRANTEAREN ETXEA
A MAILA
NAFARROA 7

Egile ezezaguna, 1580
Deskribapena

Okendo familiaren oinetxea, antzinako landa eraikin baten gainean berreraikitakoa. Eraikin hori, bere garaian, itsasertzetik gertu dauden hareatzetatik hurbil zegoen, beste laborantza baserri batzuek inguratuta. 1580an, jauretxe gisa berreraiki zuten, harlanduzko hormez, inguruko harlangaitz hormez, eta zurezko habe eta pilareez osatutako egitura berriaz, trenkada bilbaduradunen formazioa barne dela. Etxeak neurritz erakusten ditu ereduazko jauretxearen zeinuetako batzuk, hala nola, lau isurkiko estalkia eta landutako zurezko mentsulez osatutako teilatu hegala, erdian kokatuta dauden atearen eta ezkuaren motiboa, eta oin nagusiko leihateen esanahia. Soluzio berezi gisa, behe oinean aurrez aurre dauden bi sarbide arkuak eta ipar mendebaldeko orientazioa babesten duen alboko hormaren aurrerapena daude. Etxea Okendo museoa bihurtu zen familiaren ondorengo San Millango markesak eraikina 1939an dohaintzan eman ondoren, 1984an Groseko kultura etxe bilakatu arte.

Babes erregimena

- * Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- * Berariazko erregimena:
Interes historiko-artistikoko probintzia monumentu deklaratu izanaren ondoriozkoa –1964-1-17ko Ministro Aginduaren bidez (52. BOEa, 1964-2-29koa)– eta "Santiago bidea" multzo monumentalean sartu izanaren ondoriozkoa (halakotzat deklaratu zuten urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez).
- * Eragindako ingurunea: adierazitako aginduan ezarritakoa.